

ONGI ETORRI ATARRABIARA.

Ohore handia da Euskaltzaindiko kideak, Euskaltzainak, Hiribildu honetan hartzea. Izan ere, hemen beti bizi izan baita jende euskalduna. Hasieratik beretik; hau da, Nafarroako errege Antso VI.a (*seigarrena*) Jakitunak emandako Foruaren bidez, gure herria sortu zenetik.

Villava izena bera erromantzezko *villa nueva*tik dator eta aldaketa hori zor zaio hemen bizi ziren gizon-emakume gehienak euskaldunak izateari. Izen exotiko hori, izan ere, beren ahoskatze-arauetara egokitu zuten. Laburbilduz, *villava*, jatorriz, izen erromantzea da, baina euskal fonetikaren galbahetik igaroa. Eta izen hori lagun-giroan ageri da herriko euskal izenaren ondoan: Aurrabia, mugakide dugun Arre herriarekin lotzen gaituen zintzur estuaren oroigarri.

Mendez mendeko gorabeheren eta inguruabarren ondorioz, gure herriko hizkuntzak, euskarak, atzerapen izugarria izan zuen XIX. (hemeretzi) mendean. Jakin badakigu 1805ean udalak exijitu zuela Ostegun Santuko predikua euskaraz egitea. Horrexek, beraz, ederki salatzen digu Aurrabiako jendeak noraino zekien euskaraz mintzatzeko.

Egoerak okerrera egin zuen Francoren diktaduraren urte mingotsetan. Ateka gaizto hartan, Euskaltzaindia izan genuen gidari, eta funtsezko lana egin zuen gure hizkuntzaren biziraupenerako. Hain zuzen ere, garai hartan erein ziren hizkuntzaren berpizkundea

eta normalizazioa ekarri dizkiguten haziak, zenbaitek behin eta berriz jartzen dituzten traba guztien gainetik.

1975etik aurrera hasi zen euskararen egoera Atarrabian aldatzen; onera etortzen. Urte hartan, Paz de Ziganda Ikastola Atarrabian ezarri baitzen, eta belaunaldi berriek euskaraz ikasteko aukera dute. Etorreraren 35. urtemugan (*hogeita hamabost*), Nafarroako Ikastolen Jaia –Nafarroa Oinez– Atarrabian ospatuko da, eta ziur nago gure hizkuntzaren aldeko egiazko bultzagarria izanen dela.

Bestaldetik, aipa dezadan laurogeiko hamarkadan, Hiru Herri Udalen Euskara Patronatua sortu zela. Hau da, Burlata eta Uharte herri mugakideekin batera, lehen ikastola publikoa sortu zen, eta 1989an (*mila bederatziehun eta laurogeita bederatzian*), Hezkuntza Departamentuaren sare publikoan sartu zen; gaur egun, Atargi ikastetxea da, sendo eta bikain ari da, eta bertako D ereduan Atarrabiako haur asko daude eskolaturik.

Beraz, Atarrabiako jendea sakon eta bihotzez lotua dago bere hizkuntzari, eta euskaltegi bat ere badago, helduek hizkuntza ikas dezaten. Era berean, azpimarratu behar da gure herrian hainbat elkarte ari direla euskararen alde; besteak beste, *Karrikaluze* nabarmendu behar da. Karrikaluze; horra hor nola esan izan zaion Atarrabiako jendeari mendez mende. Gurea, izan ere, karrika edo kale luzea baita, Donejakue Bideak zeharkatzen duena.

Udal honek jakin badaki zer-nolako erronkak ekarri dizkion mende berriak gure hizkuntzari, eta gure ahalen neurrian, Udalaren

helburua da euskara gizarteko arlo guztietan sustatu, bultzatu eta erabiltzea; batez ere, administrazioan, eta era berean, Atarrabiako gizartearen hizkuntza-eskubideak babestu eta errespetatzea, Udala atarrabiarren zerbitzuan baitago. Hartara, euskararen erabilera eta sustapena arautzeko udal ordenantza berri bat lantzen ari gara, legealdi honetan indarrean sartuko dena.

Gauzak horrela, eskerrak eman nahi dizkizuet, zuei, euskaltzainei, Atarrabiara etorri izanagatik, zuen bisitaldia ohore handia baita Udal honentzako. Bide batez, egonaldi zoriontsua opa dizuet gure artean, eta lor ditzazuela zuen xede eta nahiak bai bizitzan bai lanean; hori, zalantzarik gabe, onuragarria izanen baita euskararentzako. Horrenbestez, hona hemen zuentzat Udalaren partez esku-erakutsi hauek, gure esker onaren erakusgarri, eta Atarrabiara etorri izanaren oroigarri.

Pello Mirena Gurbindo, Atarrabiako alkatea